

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

Ebazpena: R 10/2014

Espedientea: 1/2012

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa; izan ere, Aldundiaren ustez, hari dagokio 1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ ---1) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2005etik 2007ra bitarteko ekitaldietako eta Sozietateen gaineko Zergaren 2004tik 2007ra bitarteko ekitaldietako aitorten/likidazioen emaitzazko zenbatekoak ordainarazteko eskumena, erakunde horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoan egindako eragiketei dagokien eta Foru Aldundiari transferitu behar zaion zatian; gatazka Arbitraje Batzorde honek izapidetzen du 1/2012 zenbakiarekin, eta Gabriel Casado Ollero dihardu txostengile gisa.

## I. AURREKARIAK

1.- 1/2012 gatazka 2012ko urtarrilaren 19ko idazki bidez planteatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta egun horretan bertan erregistratu zen Arbitraje Batzorde honetan.

2.- Espedientetik, honako aurrekari hauek ondoriozta daitezke:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

a) 1. ERAKUNDEA ("erakundea", aurrerantzean) sozietate bat da, eta:

- Errepideko profesionali kalitate handiko zerbitzuak eskaintzeko eta ibilbideko jardueraren premia tekniko eta materialei eraginkortasunez erantzuteko helburuarekin eratu zen.

- Errepideko profesionalen eskakizunak betetzeko neurrira diseinatutako ordainketa-baliabide bat osatzen duten txartel batzuk ditu.

- Txartel horiek bezeroen artean banatzen ditu, eta bezeroek hainbat establezimendutan erabiltzen dituzte (hala nola gasolina-zerbitzuguneetan, erregai-hornidurarako), unean bertan eskudirutan ordaindu behar izan gabe.

- Erregai-hornidura egiten duten konpainiek 1. ERAKUNDEARI igortzen diote faktura, eta erakundeak erabiltzaile bakoitzari igortzen dio hornitutako erregaiaren zenbatekoaren faktura aldizka.

b) Erakundeak ez zuen 2005-2007 aldiko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta 2004-2007 aldiko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergaren ezein aitorpenik aurkeztu Gipuzkoan; Estatuan egin zituen ordainketa guztiak.

c) 2008ko apirilaren 17an, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak egindako txosten batean ondorioztatzen zenez, erakunde horrek eragiketak egin zituen Gipuzkoan 2004-2007 aldiko ekitaldietan, eta, horren ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenak aurkeztu behar zituen Gipuzkoan ekitaldi horietan, 2004-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

2006ko eta 2007ko ekitaldietako eragiketen bolumena 6 milioi euro eta 7 milioi euro baino handiagoa izan baitzen, hurrenez hurren.

Ondorio horretatik abiatuta, txostena sinatu zuten aktuarioek eskatu zuten Estatuko Administrazioako organo eskudunari (hark baitzuen ikuskatzeko eskumena) adierazitako erakundeari zerga-erregularizazioa egin ziezaion eskatzeko, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari zegokienez adierazitako ekitaldietan Gipuzkoan egindako eragiketen bolumenari zegokion ehunekoa aplikatu zezan eskatzeko.

Txosten hori ZAEARI igorri zitzaion 2008ko maiatzaren 9an, eta eragiketen bolumenaren proportzioa egiaztatu ondoren adierazitako zerga-aitorpenak erregularizatzeko eskatu zitzaion.

d) ZAEAREN Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiak, ikuskatzeko eskumena baliatuta, hiru adostasun-akta bakar formalizatu zituen 2009ko apirilaren 30ean 1. ERAKUNDEARENTZAT, 2005/06/07ko aldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta 2004/05/06/07ko aldietako Sozietateen gaineko Zergaren kontzeptuengatik, egiaztapen-jardun partzialen ondorioz, Zerga Lege Orokorraren (ZLO) 148. artikuluari eta Zergak Aplikatzeko Erregelamendu Orokorraren (ZAEO) 178. artikuluari jarraiki. Jardun horiek lurralde erkidean eta foru-lurraldean egindako eragiketen bolumenak aitortutako eragiketen guztizkoan duen proportzioa egiaztatzerako mugatu ziren, eta GFARako tributazio-proportzio jakin bat onartu zen akta horietan.

Dena dela, akta horietan ez daude jasota Ekonomia Itunean aurreikusita dauden eta Estatuko Administrazioak 1. ERAKUNDEAK egindako eragiketen zati bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatzeko oinarri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

diren konexio-puntuak (egiaztapenaren xede diren zergei eta aldiei dagokienez).

e) Lantaldeen 2006ko maiatzaren 18ko Ondorioetan erabakitakoa betetzeko 2011ko irailaren 26an ZAEAREN eta Euskadiko Foru Aldundien artean egindako bileraren aktaren 5. atalean, akta bakarrei eta zerga-kontrolari dagokienez (2009. urtea), Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (2006/06 eta 2007ko aldiak) eta Sozietateen gaineko Zergaren (2004/05/06/07ko aldiak) kontzeptuengatik 1. ERAKUNDEARI irekitako bere akta propioekiko desadostasuna jasoarazi du ZAEAK, "bi kasuetan tributazioaren proportzioa gaizki finkatuta dagoelako eta % 100 Estatuari dagokiolako". ZAEAK ez du adierazi zergatik uste duen "tributazioaren proportzioa gaizki finkatuta dagoela".

3.- Estatuko Administrazioari 2011ko azaroaren 22an jakinarazitako azaroaren 18ko 977/2011 Foru Arauaren bidez, eztabaidatutako ordainarazpenaren inguruko eskumenari lotutakoan inhibitzeko eskatu zion GFAK ZAEARI. Inhibitzeko errekerimendu horrek erantzunik jaso ez zuenez gero, Estatuak bere eskumena berretsi zuela interpretatu zen, eta gatazka jarri zen Arbitraje Batzordean, 2012ko urtarrilaren 19an.

4.- GFAK, bere uziaren oinarri diren aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak azaldu ondoren, eta bere planteamendu-idazkia amaitzeko, gatazka onartu eta bidezko izapideak egin ondoren ebazpen bat eman dezan eta ebazpen horretan "Gipuzkoako Foru Aldundia 1. ERAKUNDEAREN (IFZ ---1) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2005etik 2007ra bitarteko ekitaldietako eta Sozietateen gaineko Zergaren 2004tik 2007ra bitarteko ekitaldietako aitortpen/likidazioen emaitzazko zenbatekoa ordainarazteko eskuduntzat har dezan (erakunde horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoan egindako eragiketei dagokien eta,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

beraz, Foru Aldundiari transferitu behar zaion zatian)" eskatzen dio Arbitraje Batzordeari.

5.- Kontuan hartuz 30/1992 Legearen 11.1 artikuluan aurreikusitako presuntziorako egintzen erregimena "ez dela oztopo ZAEAk Administrazio auzi-jartzaileak gatazka jarri duela jakinarazi aurretik bere eskumenari uko egiten diola erantzuteko", 2012ko urtarrilaren 23ko idazki bidez (Postetxeko data hurrengo egunekoa da, hots, hilaren 24koa) erantzun zion ZAEAk inhibitzeko errekerimenduari, eta, Zuzenbideko Laugarren Oinarrian zioenez, "zergapekoari (...) irekitako akta bakarretan oker proposatu zen irizpidea berresten duten likidazio irmo eta behin betikoak egin direnez gero, bidezkotzat hartzen da likidazio horietatik GFA eraginpean hartzen duten zenbatekoak soilik bidatzea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion eragiketa-bolumenaren proportzioaren inguruko desadostasunari eustea erabaki da; nolana ere, BEZagatik (2005-2007) eta Sozietateen gaineko Zergagatik (2004-2007) (...) irekitako akta bakarren ondorioz egindako likidazio irmoek eraginpean hartzen dituzten funtsak bidaltzeko betebeharra onartu beharko da".

6.- 2012ko otsailaren 24ko eta egun horretan bertan erregistratutako idazki bidez, ZAEAk inhibitzeko errekerimenduari emandako erantzunaren berri eman zion GFAk Arbitraje Batzorde honi. GFAREN ustez, ZAEAk Gipuzkoako Foru Aldundiari funtsak bidaltzeko betebeharra onartu bazuen ere, "idazki hau sinatu den datan ez dago jasota ZAEAk bidalketa hori egin duenik, eta Estatuko Administrazioak Foru Aldundi honi zor duen zenbatekoa ordaindu arte gatazkek bere horretan dirauela (...) ulertu behar da".

7.- 2014ko abenduaren 1ean, ZAEAk aurkeztutako honako dokumentu hauek erregistratu ziren Arbitraje Batzorde honetan:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

- Lantaldeen 2006ko maiatzaren 18ko Ondorioetan erabakitakoa akta bakarrei eta zerga-kontrolari dagokienez (2009. urtea) betetzeko ZAEAREN eta Euskadiko Foru Aldundien artean Bilbon egindako bileraren akta, 2011ko irailaren 26koa.

- ZAEAK eta GFAK DONOSTIAN, 2012ko urriaren 11n izenpetutako akordioa.

- Lantaldeen 2006ko maiatzaren 18ko Ondorioetan erabakitakoa akta bakarrei eta zerga-kontrolari dagokienez (2010. urtea) betetzeko ZAEAREN eta Euskadiko Foru Aldundien artean Bilbon egindako bileraren akta, 2013ko martxoaren 22koa.

8.- 2014ko abenduaren 15eko idazki bidez, ZAEAK aurkeztutako dokumentazioaren berri eman zion Arbitraje Batzordeak GFARI, gerora gatazkaren xedearen galera gertatuz gero Arbitraje Batzorde honi jakinaraz ziezaion.

9.- 2014ko abenduaren 17ko eta egun horretan bertan erregistratutako idazki bidez, honako hau azaldu zuen GFAK gatazkari dagokionez:

"ZAEAK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak akordio bat izenpetu zuten 2012ko urriaren 11n. Horren bidez, Estatuko Zerga Administrazioak Gipuzkoako Foru Aldundiari 2009. urtean 1. ERAKUNDEARI BEZAGATIK (2005-2006ko ekitaldiak eta 2007ko ekitaldia) eta Sozietateen gaineko Zergagatik (2004-2007ko ekitaldiak) irekitako akten ondoriozko zenbatekoa ordainduko ziola adostu zen, (...) Gipuzkoan bi zergei lotuta egindako eragiketei zegokien zatian (...). ZAEAK Foru Aldundi honi adierazitako ordainketa egin ondoren, planteatutako gatazken xedea

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

eztabaida desagertu izanaren ondorioz gerora desagertu egin dela jakinarazi zitzaien Arbitraje Batzordeari.

Dena dela, horrek ez du esan nahi Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizuneko jardunetan Arbitraje Batzordean planteatutako gatazketan bultzatutako funtsezko irizpideari eusteari uko egin behar dionik, lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren ondoriozko ordainarazpenaren inguruko eskumenari dagokionez.

Adierazitako idazkian, GFAk honako hau eskatzen zion Arbitraje Batzorde honi, gatazkari dagokionez:

"(...) 1. ERAKUNDEA sozietateari BEZa (2005-2007ko ekitaldiak) eta Sozietateen gaineko Zerga (2004-2007ko ekitaldiak) ordainarazteko eskumenari dagokion 1/2012 zenbakiko espedienteari lotutako gatazkaren inguruko jardunak artxibatzeke (...)"

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau GFAk planteatu du ZAEAREN aurka. Izan ere, GFAREN ustez, hari dagokio erakundearen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2005etik 2007ra bitarteko ekitaldietako eta Sozietateen gaineko Zergaren 2004tik 2007ra bitarteko ekitaldietako aitorten/likidazioen emaitzazko zenbatekoak ordainarazteko eskumena, erakunde horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoan egindako eragiketei dagokien zatian, eta, era berean, adierazitako zenbatekoa Foru Ogasunari transferitu behar zaio.

2. Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, "Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpenak hartzeari, funtzionamendu-erregimenari eta prozedurari lotutako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, Erregelamendu honen ondoriozko berezitasunak aparte utzi gabe".

3. Adierazitako 30/1992 Legearen 87. artikulua arabera, eskaeraren edo uziaren ebazpenak eta atzera egiteak emango diote amaiera prozedurari, besteak beste, eta "prozedura amaitu egingo da, era berean, gerora sortutako arrazoiak direla-eta prozedura ezin bada inola aurrera eraman. Emango den ebazpenak, betiere, arrazoitua izan behar du".

"(...) prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere, gertatutako ingurumariak adieraztea, horixe izango da [amaiera emango dion] ebazpena, betiere jazotako egitateak eta aplikatu daitezkeen arauak zehaztuta" (30/1992 Legearen 42.1 artikulua).

4. Aztergai dugun kasuan, ZAEAk, 2012ko urtarrilaren 23ko idazkian azaldutako arrazoi zehatzen bidez (ikus gorago 5. aurrekaria) GFAk erakundeari 2009. urtean irekitako akten ondoriozko zenbateko erreklamaturia jasotzeko eskubidea duela esanbidez aitortu ondoren, zenbatekoaren ordainketa egitea onartu zuen bi administrazioek 2012ko urriaren 11n lortutako Akordioan; ordainketa geroago egin zuen, eta GFAk jaso zuela adierazi zuen (ikus gorago 9. aurrekaria). Bi zirkunstantzia horiek bi administrazioen artean sortutako gatazkaren desagerpena dakarte, eta, arrazoi beragatik, "prozeduraren xedeari gerora gertatutako desagerpena" ere bai (30/1992 Legearen 42.1 artikulua).

Nolanahi ere, bi administrazioek lortutako Akordioa gatazka zehatz honen xedera esanbidez mugatuta dago, eta bietako ezeinek ez dio uko egingo etorkizuneko jardunetan lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2012	R10/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Administrazio eskuduna finkatzea. Bi administrazioen arteko akordioa

ondoriozko ordainarazpenerako eskumenari dagokionez duen funtsezko irizpideari.

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

## ERABAKI DU

1.- Jardunak amai eta artxiba daitezen agintzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren artean lortutako Akordioak eztabaidaren gerora gertatutako desagerpena baitakar, eta, horrekin batera, gatazkaren xedearena ere bai.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.